

IX. EDIZIOA



“Café Bar Bilbao”

Teatro Laburreko Saria

Premio Teatro Breve

Fredi Paia

Hartu ez nuen deia

2011

HARTU EZ NUEN DEIA

Fredi Paia Ruiz

Fredi Paia Ruiz. Getxo, 1981. Etnografo, bertsolari eta musikaria. Antzerkiari dagokionez, familiarik datorkio zaletasuna, ama gaztetan antzezlea izandakoa du. Gilkitxaro taldearekin "Trokaolatarrak" antzezlanean parte hartu zuen 2001. urtean gidoiari txertatutako kopla batzuen bidez. Ander Lipus, Andoni Egaña eta Xabier Payarekin batera "Bertso-tranpak" bertsolaritza, musika eta antzerkia uztartzen zituen egitasmoko partaide izan zen. Antzezle markinarraren "Errege eta bufoia" bertso eta antzerki bidezko ekarriketa saioan jardun izan du hainbat aldiz. Antton Lukuren lanetan ere izan da, beti ere bertsolari moduan.

Hartu ez nuen deia. Antzezlan labur honen gaia maite ditugun pertsonak heriotzaren aurrean betiko agurtzearen garrantzian oinarritzen da. Autoreari aitak hil baino egun bi lehenago deitu zion Frediri baina ezin izan zuen deia hartu. Pertsonaia guztiek etorkizuna ezagutzen duten fikzio honetan protagonistaren aitak betiko agurtzeko deituko dio semeari. Egun bi beranduago hilko dela esan eta betiko agurtzeko.

Egongela txiki bat. Sofa zahar bat dago erdian, eta kristalezko mahai baxu bat du aurrean. Era kaotikoan, hiru-lau liburu ageri dira zabaldutako egunkariaren gainean, garagardo lata pare bat, hautsontzia zigarretaz gainezka, marihuanaz beteriko egurrezko kutxa bat eta ordenagailu eroangarri bat, dena mahaiaren gainean. Vag musika laukote paristarraren lehenengo diskoko laugarren kanta, Margot baltsea entzuten da gelan. Sofaren gainean neska-mutil bikote bat larrua jotzen ari da suharki, mutila azpian eta neska gainean.

Cuk: *Plazer hasperenak... Eider, Eider!!*

Maider: *Plazer hasperenak... Maider naiz... Maider...*

Cuk: *Plazer hasperenak... Etimoa bera da... hasperenak*

Maider: *Plazer hasperenak... Zer? Plazer hasperenak*

Cuk: *Hasperena... gauza bera dela... plazer hasperenak*

Maider: *Mutila besoetatik oratu, mutilaren buru gainera eroaten ditu eta haserre ahotsez: Zelan gauza bera dela! Larruan jotzen gaudela beste inoren izenetik deitu eta gauza bera dela? Zerri zikina!*

Cuk: *Larriturik... Bai pitxin... Maider eta Eider etimo beretik sortutako berbak dira, sustrai, oinarri, jatorri semantiko berekoak. Gure orografia gorabeheratsuak gure hitzei sortu dien gorabeheretako bat. “Maiderra” zein “ederra” polita denari esateko erabiltzen dira euskaraz. Izen bihurtutako adjektiboak dira. Beraz, “Eider” esan dizudanean, nire ahotik hizki larririk, zuek DBHkoentzat, maiuskularik, irteten ikusi ez baduzu behintzat... Polit deitu dizut... Ez besterik...Maider gogoetatsu geratu da Cuk-en barbaroa entzun ostean, eskuen indarra laxatu du, aske geratu da Cuk-en eskuin eskua eta Maiderri aurpegia laztantzen dio.*

Maider: *Buruarekin ezker-eskuin, ezezkoa egiten du eta etsipen ahotsez...Urde filosofoa...Ezpainetan musu eman dio eta sexu jolasean hasi dira berriz ere.*

Cuken mugikorra joka hasi da: Paco Ibañezen ahotsa da, Jorge Manriqueren “Coplas por la muerte de su padre” abestia kantatzen. Bat-batean imajina izozten da, bikotea izoztuta dago, ez da mugitzen eta Cuken ahotsa entzuten da OFF-ean.

Cuk off ahotsa: *Solemnitete eta dramatismo ironikoaren arteko tonuarekin. Ostia! Paco Ibañezen kanta, aita da! Nire odoleko leukozito, leinuko buru, behar dugun guztia izan arte sekula atsedetik hartu ez duen familiaren aldeko gudaria... Eszeptizismo tonua Baina... egoera honetan ez dago telefonoa hartuko lukeen hilkorrik. Aita, ama, Simoncheli, Barney Mckenna zein Ernesto Gebara izanda ere.*

Irudia desizoztu da. Bikoteak larrua jotzen jarraitzen du eta mutilak jalgitzeko ahalegin xalo bat egiten du beso eta eskua mahai gainean dagoen mugikorrerantz. Mainerrek besotik oratu eta bere gorputzera ekarri du berriro. Berriz ere izoztu da irudia.

Cuk off ahotsa: *Ahots zintzo eta larrituz. Hala ere, ziur nago dei hori garrantzitsua dela. Bizitzak gertakizunak une baten, abisurik gabe pasarazi eta azalpenak geroagoko une baterako uzten ditu. Bagdadeko morroiak Ispahanera heldu ostean ulertu zuen Herioren goizeko harridura imintzioa. Sufrimendua, gauzak gertatzen zaizkigunetik eurengandik ikasi behar dugun ikasgaia zein den ulertu arte doan denbora da. Gertakizuna jazo eta berehala hasi ohi da, ukaziotik amorrura eta amorrutik tristurara doa. Eta barrutik txiki-txiki bihurtzen garela sentitzen dugunean ezinbestekoa zaigu zerbaitekiko fedea. Helduleku bat. Berdin dit helduleku hori naturaren ilogikotasuna, Buda, Txomin Iturbe edo Kaiku trainerua den. Buruak azalpenik ematen ez digunean, gure baitakoak ez garela asimilatzeko mekanismo mental lasaigarria behar dugu. Errealitatea digeritu bitarteko samin zikloko fase bakoitza laburtu eta ondoa hankak flexionaturik dituzula jotzeko balio du. Orduan, nostalgia deitzen diogun “eguzki eder joan guztien argia” agertuko da, argiarekin edertasuna, eta edertasunarekin indarra. Portugaldarrek *fado* deitzen dioten tristuratik sortutako energia izugarri hori, etorkizunik izan litekeela sinesteko berme posible bakarra.*

Cuk, Mainer bere gainetik kendu, eta telefonoa hartzera doa.

Mainer: *Nora hoa zerri ustel? Lasai, amaitzear gaudek eta!! Laster utziko haut libre! Zer duk, hire maitaleren bat?*

Cukek buelta erdia eman du, itzulunguru zalantzatiak egiten ditu Mainerri eta telefonoari begiratzat aldian-aldian. Paco Ibañezen kanta entzun liteke, deika ari denak ez du etsitzen.

Cuk: *Bai Mainer, nire maitalea dun! Asko maite dinat eta asko maite nain, hik ni baino askoz gehiago. Azken finean, hi hurrengo astean itsasoaren beste aldera joango haiz, han geografo batekin liatuko haiz, hatorrenean esango didan ez haizela inorekin egon, baina hire maite horrek etorri nahia izango dinanez, (hik beragana bueltatuko hintzela agindu ostean, prefosta)*

gau batez musu bi, edo lau, emandako lagun bat etorriko dela esango didan, ez dela ezer ere gertatuko, harremanak amildegira eramatea gustuko dunala eta demokristau konplexua iltzatuko didan bihotza birrindu bitartean. Beraz, joan hadi nire etxetik, utz iezadan nire maitalearekin berba egiten, eta Anbotoko Damak gida beza etorkizuna!! Hala ere lasai, larrualdi hau noizbait amaituko dinagu eta.

Abiada betean buelta eman eta telefonoa hartu du. Aitarekin hizketan hasiko da. Orduetik Mainer eszenaren dialektikatik bigarren planora igaroko da, sekula existitu izan ez balitz legez. Bere gauzak batuko ditu eta alde egingo du. Ez zaio haserterik nabarituko, are gehiago, ikusleak Mainerrengan ezaxola nabarituko du, zerbait nabaritzekotan.

Cuc: Egunon, Sekula betiko ume galduen elkarte. Nor zaitugu?

Kukufato: *Antzezlanean ez da azalduko, ahots sakon bat baino ez da.* Jesukristo, sionisten errege!!

Cuc: Ohore handia gurea!! Ume galduen elkartean ohorezko bazkide ugari palestinarra den arren... Zertan lagun diezazukegu?

Kukufato: Alper kalamu zale baten berri jakiteko deitu dut. Nire izen bera du eta 17 urterekin santxeskian ibiltzeko trebetasuna diru sarrera bihurtu zuen arte nire bekokiko izerdiak ordaindu zion den-dena. Hurrengo lau aro geologikoetan unibertsitateko ikasketak amaituko ote dituen jakin gura nuke, ez besterik.

Cuc: Zenbakiz erratu zara orduan, iragarletza ez da gure zerbitzuen barruan ageri. Gu ume galduak baino ez gara, itsaso eta ilargiaren seme-alabak.

Kukufato: Atera ezazu paper madarikatu hori behingoagatik!! Eta gero, gura baduzu Hippy egin eta Indiara joan zaitez opioa erretzera. Baina niri ekarri godoen errege urdeak sinatutako zelulosa zati hori!! Hilik ala bizirik!!

Cuc: Aita, nirea Harvardeko sindromea da. Lana lortu nuen ikasketak amaitu aurretik. Txaloka behar zenuke nire balkoiaren azpian. Artaldearen jokaldi estatistikoa ikasketak amaitu, master bat egin, gradu-ondoko, doktoratu eta langabeziaren pulpitutik sermoiak botatzea da. Hori bai, gurasoek txikiteo bete pelukeria daukate beraien seme alaben gorbata merkeen zigiludun zergatiez mintzatzeko. Zure gin tonic gaixoek, oster, ezin dute lagun aurrean gorbatadun zuhaitz genealogikorik laudatu. Vade retro Satanas!

Kukufato: Se non é vero, é ben trovato..... Lurtar saskila! Ez dakit zelan daukazun hain kresal gutxi zainetan. Paperik ateratzen ez baduzu, lehenago ala beranduago, Poseidonen gurarien arabera, zu baino askoz gutxiago dakien paperdun bizkarroia ipiniko dizute gainean.

Berak jakingo du zuk beste ez dakiela, ez duelako bere lana zuk beste maite; egia bilatzea ez delako bizitza ulertzeko bide posible bakarra izango berarentzat. Zapalduko zaitu, ahal duen beste. Soilik onartuko zaitu bere itzal bezala zure lana berak baliatu balezake, goragokoen zein gizartearen aurrean. Ur irakineko galdara horretan urte batzuk igaro ondoren, ilargi beteari garrasi egingo diozu Vodka botilaren azken tanta agortzen duzun une berean: Arrazoi zuen nire zahar zerrikumeak!

Baina aipatu berri duzunez...zelan ama? Lehengoan egon nintzen berarekin, Someratik, basoerdi batzuk edaten. Eta ohitura zaharrak gal ez daitezen, azken gorri nafarra aurpegira jaurti eta oihuka hasi zitzaidan.

Cuc: Ezagun da oraindik ere San Telmoren suaren indarrez maite duzuela elkar!

Kukufato: Ekaitz gorriean, belauntzietako mastak laser ezpata bihurtzen dituen Odinen su sakratua!! Enbata derrigorrezkoa du bizitzeko San Telmoren suak!!. Tximisten arimak elkartu gintuen zuen ama eta biok, eta ez dakigu beste era batean maitatzen.

Cuc: Berba politek guztia egiten dute eder.

Kukufato: Berbak behar ditugu bizitzeko, seme. Mundua guztiz ezberdina da gauza berari bakardadea ala askatasuna deitzen diogun arabera. Sentitzen duguna baino askoz garrantzitsuagoa da sentitzen diogunari josten diogun berba, zein ipuinen barruan bidaiatzen dugun. Eta nire ipuina etzi amaituko da ...

Cuc: Azken puntua ez dut ulertu. Ze errima da hori?

Kukufato: Entzun duzuna. Etziko goizaldeko zazpietan segadun anderea ondoan paratuko zait, Zabalburun hartuko dudan taxi baten atzeko eserlekuan. Zu ospitalera heltzerako gorpu izango naiz, betiko lozorroan. Taxi gidaria bilatzen ahaleginduko zarete nire azken uneak berreraikitzeke. Baina ez duzue sekula topatuko, enpresari eskatuko dio ez bere berririk emateko, eta zama astun hori garraiatu beharko du bere bizitza osoan.

Cuc: Eta zergatik ez diozu patuari ihes egiten, aita? Etorri nire etxera, ez hartu goizaldeko zazpietako taxia, bizi zaitez. Itsasoan eman dituzu azken berrogei urteak, disfrutatu apur bat...gurekin.

Kukufato: Hori ez litzateke disfrutatzea, zuk bizitza deitzen diozun hori ez da bizitza niretzat, seme. Lurtarrak ez zarete zintzoak, ez zarete logikoak, eta uste duzue zapaltzen duzuen ez dela mugitzen. Ez dakizue elkarri loturik zaudetela halabeharrez. Barkuak itsas hondora doazenean mundua hondoratzen zaigu, baina gutakoren bat salbatu ohi da beti. Zuen mundua ezin omen da hondoratu, baina banaka hondoratzen gaitu, ingurukoak konturatu barik, eta inor ez da libratzen. Argi bizi seme, barkuek ez dute itxaroten. Botak jantzita hilko naiz ni, beti

esan izan dizudan erara, jubilatuko osteko lantokirako bidean. Nire gutunazal bat helduko zaizue handik bi egunetara. Barruan Zuloagaren koadro baten postala eta berrehun euro aurkituko dituzue.

Cuc: Dirua bidaliko diguzu hil eta gero ere?

Kukufato: Nire azken hogeita hamar urteen sintesia, seme. Patuaren zigiluak.

Cuc: Ba bihotzez eskertzen dizut deitu izana. Egia esan ez zait justua iruditzen jubilatuko eta berehala hiltzea. Beti egon zara etxetik kanpo lanean, zure Indonesiako labanarekin koskaz bete zenuen egongelako ateko markoa, kanpainatik kanpainara zenbat hazi ginen neurtzeko. Astoak legez lan eginez beharizan materialak ase dizkiguzu beti. Eta era berean, zure hutsune fisikoak sortzaile bihurtu gintuen. Barrua bete zenigun zure sorgin-pirata, bale hegalaria eta marrazoek jandako atzamar muturren ipuinez. Itsasoa ikusi eta “aita!” oihukatzen genuen. Orain gutxi lortu dugu familia rolen maskarak erantsi eta elkar maite dugun pertsona legez hitz egitea elkarri. Orain hasi naiz zu ezagutzen, nire bizitzara diziplina eta ordena izeneko legen beltzak ekarri gura zituen militarri maskara kendu ondoren. Eta orain, geratuko zinela ematen zuenean, betiko joan behar al duzu?

Kukufato: Hau ez da nire lekua seme, ni ez naiz hemengoa. Jendez inguraturik ikasi nuen bakardadean bizitzen, eta oraingo askatasuna astunagoa egiten zait. Olatuen goraldi, ereti eta hurrengo goraldiari begira alde egin zuen zuon seintzaroak. Nire akats berberak errepika ez zenitzaten zuen bizitza bideratu gurak urrundu gintuen nerabezaroan. Eta orain, nire pertsonaia eszenan egundo agertu ez den antzezlan bateko ahots urrun sentitzen naiz. Ez duzue nire premiarik aurrera egiteko, bakoitzak zuen bidea egina duzue, eta bidearen amaiera partekatu gura nuen horrek hamarkadetan sufritutako bakardadearen apologia egiten du orain. Infernua mila urtez egoteak, sua zeru bihurtuko balu legez. Siberiarrak, nire egoerara heltzean, basora joaten dira vodka botila besapean dutela. Osorik edaten dute bizitzan zehar jasandako hozberoak gogoratu, negarra darion irribarrez. Ostean, zuhaizpe baten loak hartu eta belarritik belarrirako irribarrez joaten dira betiko.

Cuc: Ederra izan zen elkar ikusi genuen azken eguna. Zu gitarra eta panderoz, ni biolin eta kantuz. Zure Malakako dantzak, bizkarrezurrean iltzatuta daukagun informazio kulturala, Atenaseko ospitaletik ospa egin behar izan zenuen aldi hura, aitaitak “Makiei” jatekoa eramatera zihoala “pikoletoak” topatu eta tiroketan galdu zuen begia... Eskerrik asko zure barrua lagun bati legez zabaltzeagatik.

Kukufato: Eskerrak zuri aukera emateagatik. Behar izan nauzun urte guztietan ondoan egon ez baina beti elkarrekin izan bagina legetxe besarkatu nauzulako. Beti egon naiz zuengan, eta hala jarraituko dut hemendik aurrera. Zuen barruan uzten dut gehien maite dudana, porroten

aurrean jaikitzeo indarra, mingarria bada ere bide zuzena aukeratzeko duintasuna, malkoetatik irriak sortzeko trebezia, eta ortzi-mugara begira bizi den marinel zoliaren begirada. Maita itzazu etxekoak, eta ez galdu astirik beldurra ezkutatzeko erabiltzen ditugun hitz horiek guztiekin. Bizi intentsitatez, beste guztia ez baita bizitza, iraupena baizik. Eta segadunak zure burua agurtzeko utziko dizkizun segundo urri baina infinitu horietan, ez duzu bihotz osoa ipinita egin ez duzun gauzarik aurkituko. Hutsik egongo dira zure bizitzaren zati horiek. Izugarri maite zaituztet, badakizue, baina berbaz adieraztea kostatu izan zait beti. Badakizu azken unera arte ez garela damutzen gauza ederrak esateko daukagun erreparoz. Gauza mingarriak botatzeko dugun erraztasuna zein infantila den ulertzen dugun une berean jabetzen gara gure kokolotasunaz. Agur seme. Liburu bat utzi dut nire txabolan zuretzat, ikusi ahala jakingo duzu zein den.

Cuc: AITAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAAA!!!!!!!!!!!!!!! Oihu lazgarria.

Telefonoa komunikatzen dago. Kukufatok telefonoa eskegi du.

Cuc: *Etsipenak irentsi eta mugikorra utzi du apurka-apurka mahaiaren gainean. Zutitu eta publikoari begiratzen dio, une batez, westerneko amaierako duelua bailitzan.*

Cuc: Dei hori...existitu zitekeen....gure aitak, hil baino egun bi lehenago hots egin zidan. Telefonoak jo zuen....baina ez nuen hartu.

Argiak itzaltzen dira.